

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO POLITIKA

Bermeoko Udalak lan-baldintzen etengabeko hobekuntzarako sustapena oinarritzko printzipio eta funtsezko helburutzat hartzen du. Horretarako, azaroaren 8ko laneko arriskuen prebentziorako 31/1995 Legean eta bere garapenerako araudian adierazten diren betekizunen maila minimoak onartzen ditu.

Laneko arriskuen prebentzioarekin konpromisoa eta hemendik eratortzen diren erantzukizunak erakundeko maila guztien ardura izan behar da. Konpromiso hau, erakundeko maila eta jarduera guztietan politika onartzen eta araudia eta prozedurak errespetatzen eta betetzen badira lortu genezake bakarrik. Helburu hau lortzeko Bermeoko Udalak:

- ✓ Laneko arriskuen prebentziorako sistema integratua ezarri du.
- ✓ Prebentzio ekintzak erakundeko maila eta jarduera guztietan integratuko du.
- ✓ Langileriaren baitan prebentzio kultura bultzatuko du.
- ✓ Lanetik eratortzen diren arriskuen ezagutza hobeto bati zuzendutako prestakuntza eta informazio jarduerak garatuko ditu.
- ✓ Laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketan langileen parte-hartzea eta kontsulta bultzatuko du.
- ✓ Prebentzio eta jarduera planak garatuko ditu eta langileriaren lan baldintzen etengabeko hobekuntzara zuzendutako ekintzak bultzatuko ditu.

Bermeoko Udalak, agiri honen bitartez, bere konpromisoa argi adierazten du, langile guztien helburu soziala lan bizitzaren kalitatea hobetzea izan behar dela helarazten dizkie bere egiturako osagai guztiei. Hau lortzeko, Tokiko Administrazioaren eskumenean dauzkagun politika eraginkorrak bermatu beharko dira, laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa interes orokorrekoa izan dadin.

Beraz, gogorarazten dizuet, Bermeoko Udalak laneko arriskuen prebentziora daukan konpromisoa zuzena eta zorrotza dela eta lan bizitzaren kalitatea hobetzea izan behar dela erakundearen helburu soziala.

Azkenik, eskatuko nizueke, zuen arloan ezartzen diren laneko arriskuen prebentzioko neurriak betearaztea eta eguneroko lanetan eta eginkizunetan laneko prebentzioko neurriak integratzea, hau horrela ez bada, erakundeak dituen amonestazio eta sartzio tresnak aplikatu beharko ditu.

Bermeen, 2011ko uztailaren 15an,



ALKATEA

Idurre Bideguren Gabantxo

